

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Lehen aipatu genuenez, enpresarekin hasteko dirua behar dugu, eta horretarako bankuari mailegu bat eskatuko genuke.

Gure enpresak bere jarduera epe laburrean/ertainean hasteko geuk egingo genuke lan. Denbora pasa ahala langile berriak kontratatuko genuke.

Izango ditugun harremanak gure zerbitzua osatzeko, hauek izango dira:

Lehenik eta behin, hornitzailearekin kontaktuan jarri gara eta ezaugarri hauek adostu ditugu: atauden tamaina, prezioa eta kalitatea.

Gainera, taxi agentzia batekin kontaktuan jarri gara eta adostu dugu, larrialdi bat gertatzen bada, dei batekin berak momentuan argetzea.

Gure taldea osatzeko, hainbat pertsona kontratatuko ditugu, hala nola, pertsona bat beharko dugu aplikazio bat egiteko, kontrolatzeko eta mantentzeko, hau da, informatikari bat, beste bat deiei erantzuteko eta abar.

Amaitzeko, animaliak saltzen dituzten dendadekin, kontaktuan jarri gara eta gure enpresako liburuxkak jendeari emanaz laguntzea erabaki dute, egiten dugunaren eta zertaz datzan informazioa emanaz.

Hau guztia lortzeko, lokal bat alokatuko dugu eta aurreago, dirua irabazten hasten garenean, lokala erosiko dugu.